



199. zenbakia

· IRAILA 2020 ·

pulunpe



Anue, Atetz, Basaburua, Imotz, Lantz, Odieta eta Ultzamako aldizkaria

ARGITARATZAILEA AMETZA KULTUR ELKARTEA

PULUNPE SAREA

Euskara Zerbitzua, Gurutze, Patxi,
Goizargi, Inma, Izaskun, Irantzu, Virginia,
Josu, Arantxa, Maika, Itziar, Facebooken
parte hartzen duzuenak, banatzaileak,
etab... barkatu aipatu ez zaituztegunoi.

EMAILA

pulunpe@gmail.com

ZENBAKI HONETAKO KOLABORATZAILEAK

Sareko taldekideez gain, Txurdan,
Lurra, Joxe Jabier eta Ana Galar

KOORDINATZAILEAK

Aitziber Lizeaga, Garazi
Zabaleta eta Itziar Perez

TIRADA

1.700 ale

INPRIMATEGIA

Gertu

MAKETAZIOA

Zas Komunikazioa

AZALEKO ARGAZKIA

Aralar, Tutture tontorra atzean.
Egilea: Inma Fernandez

LEGE GORDAILUA

NA 721/93

Inprimategira irailaren 1an bidalia



“

*Frankismoaren kontrako
borroka zure gain hartu
eta utzi zenitun
Etxeak denak zain*

*zure hilobi bihurtu zen gure Lizardiain
Ikatzez belztutako historiaren orbain*

*zure hilobi bihurtu zen gure Lizardiain
Eta lurra berdetu egin zaigu orain*

”

Endika Legarraren bertsoak

Goldaratzen bota zituen, bi maki desobiratu zituztenean, uztailaren 26an



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

Gartzaronen, Pulunpe banatzaileak

“Gure artean ederki moldatzen gara Pulunpe banaketan”

María Luisa Beunza, Amaia eta Irantzu Legarra eta Olaia Gaskue izan dira Gartzaronen Pulunpe banatzaileak hasiera-hasieratik. Garai batzuetan batek eta beste batzuetan besteak, baina orain guztien artean egiten dute. Bata bestearen arrimuan helburua Pulunpe etxe guztiak jaso dezaten da, nahiz konfinamenduan ez den erraza izan.

• NOLATAN HARTU ZENUTEN PULUNPE ALEAK BANATZEKO ARDURA?

Lehenago Udalan uzten zituzten aleak, gero Apeztegiberrin baina Juantxok galdetu zigun ea norbait prest legokeen herriko etxeetara banatzeko eta baietz esan genion. Gu gara, nola edo hala, Pulunpe Gartzaronen banatu dugunak hasiera batetik. Lehenago batek eta gero besteak baina aspaldian elkarrekin moldatzen gara eta ongi daramagu.

Dendara iristen direnean Olaiak abisua eman edo batzuetan berak igotzen ditu, beste batzuetan erosketak egitera jaisten garenean hartzen ditugu.

• ZENBAT PULUNPE ALE BANATZEN DITUZUE OSOTARA GARTZARONEN?

31 ale banatzen ditugu.

Maria Luisa: Nik aleak ikusten ditudanean, banatzeko aitzakiarekin paseo bat eman bitarte uzten ditut etxeetan, batez ere neguan. Alferkeria kendu eta kalera ateratzeko aitzakiatzat hartzen ditut banatze lanak.

Olaia: Neguan pereza gehiago ematen dit etxetik ateratzea. Baina, beste batzuetan, saltzailea etortzen denean, adibidez, Pulunpe aleak bertaratu eta hantxe egiten dute banaketa. Jendea biltzen den edonon. Dena den herrian bertan ez dauden etxeetara eramatea egiten zaie zailen, baina nolabait moldatzen dira.

Olaia: Dendan ikusten baditut, bertan ematen diet alea, adibidez. Beste batzuetan Irantzuk eramaten ditu kotxean eta haien etxe-ataritatik pasatzean utzi.

Hori du ona auzolanean banatzeak, bati kostatzen zaiona, besteari bat ere ez eta honela batak bestearekin beti banatzen dugu guztion artean lan handirik egin gabe, eta honela ez da sekula gelditzen banatu gabe.

Jendea Pulunpe noiz hartuko zain egoten da beti. Jakiten badute beste herrietan jada banatu dituztela, berehala esaten digute: Aizue! Eta gure Pulunpeak noizko?

Irantzu: Asko kostatu zen konfinamendu garaian. Ezin etxetik atera. Ale batetik bestera oso alde gutxirekin banatu genuen, aste baten aldea edo halakoa batetik bestera. Konfinamendu garaian

pixka bat trakets ibili gara. Jendea ez zen ateratzen eta guk ere ateratzeko beldur pixka bat genuen.

Egunero pasatzen zitzaizkigun foralak herritik. Arraro izan zen denbora tarte hori, baina bueno, bestela oso ongi moldatzen gara.

• ZUEI ZER GUSTATZEN ZAIZUE GEHIEN?

Maria Luisa: Tarteka irakurtzen dut, den dena, goitik behera. Gosaltzen ari naizela zati bat, bazkal ondoren beste zerbait eta horrela.

Amaia: Niri pasadizo zaharrak gustatzen zaizkit gehien bat, bitxiak dira. Argazkik ere bai. Urtebetetzeak...

Irantzu: Niri berriz, erdiko argazkiak eta hori, Saltsa Purrusta. Beste bailarako norbait agertzen denean, aspaldi ikusi gabe edo zurekin ikasi duen baten berri jakiten duzunean.



▲ Gartzarongo Pulunpe banatzaileak eta ondorengoak



Parke eolikoa

Ezadostasuna sortu du Anuen eta Odietan Sacyr enpresaren parke eolikoen proiektuak

Nafarroako iparraldean parke eoliko berriak eraikitzeko hainbat proiektu abiatu dituzte azken hilabeteotan. Parke horietako bik, Sacyr Concesiones S.L.U. enpresaren Nafarroa 1 eta Nafarroa 2 parkeek, hainbat sorgailu aurreikusten dituzte Anotzibarren (Odiet) eta Etsainen (Anue). Anotzibarko kontzejua proiektuaren aurka azaldu da, eta Etsainen, iritzi ezberdinak egon arren, proiektuaren aldeko babes gutuna bidaltzea erabaki zuten bozketa bidez.

Otsailean izan zuten lehen aldiz parke eolikoen proiektuen berri Anotzibarko eta Etsaingo kontzejuetan. Sacyr enpresako saltzaileak bilerara deitu zituen herritarrek, proiektuaren nondik norakoak aditzera emateko. Jakinarazpen ofiziala, ordea, konfinamendu garaian jaso zuten Nafarroako Gobernuako Ingurumen Departamendutik. Iritzi ezberdinak daude herritarren artean, eta baita Kontzejuen artean ere. Odietaz eta Anuez gain, Txulapain, Ezkabarte, Olaibar eta Esteribar ere hartuko lituzkete Nafarroa 1 eta 2 parkeek. 24 haize-sorgailu izanen lirатеке guztira.


Anotzibar, aho batez proiektuaren aurka

Nafarroa 1 parkeko hiru haize-sorgailu joanen lirатеке Anotzibarko Aldaun mendian proiektua aurrera aterako balitz: 4 MW-ko potentzia eta 195 metroko garaierako errota lirатеке. "Momentuz, proiektuaren hasierako fasean gaude: kaltetu eta interesatuei jakinarazpenak bidali zaizkigu Nafarroako Gobernutik, eta ekarpenak egiteko aukera izan dugu", azaldu digu Gurutze Santxo Anotzibarko Kontzejuko kideak.

Egitasmoaren berri izan zutenean Kontzeju irekia deitu eta aho

batez erabaki zuten proiektuari babesik ez ematea. "Ingurumenean eragingo lukeen inpaktua handia litzateke, sekulako malda baitago hemen errota jarri nahi dituzten tokian, eta horrelako obra baterako mozketak handiak egin beharko lituzkete", dio Santxok.

Gainera, Nafarroako Energia Planak parke eolikoak eraikitzeko dituen mapetan Aldaun mendi ingurua Ez Egoki gisa dago izendatua. Basoa ingurua izanda, landarediari, hegaztiei eta bestelako animaliei, geologiari nahiz paisaiari eraginen lizkieken kalteengatik hartu dute egitasmoa ez babesteko erabakia Kontzejuko kideek. Aldaun mendia herri gunetik oso hurbil dagoela kontuan izanda, haize erroten eginen luketen zarata ere bada herritarren kezka. Odietako Udalak Anotzibarko Kontzejuaren erabakiak errespetatuko dituela jakinarazi du.



Nafarroa 1 eta Nafarroa 2 parkeetako erroten kokapena. Koadro gorrietan Anotzibarkoak eta Etsaingoak

“ Parke eolikoak eraikitzeko Ez Egoki gisa du izendatua Nafarroako Energia Planak Anotzibarkoa ”



▼ Anotzibarko Aldaun mendia. Hiru errota joanen lirateke bertan



Etsainen, herritarren artean iritzi ezberdinak

Etsainen hegoaldean ere hiru haize-sorgailu joanen lirateke, Nafarroa 2 parkekoak hauek, eta Anotzibarkoen ezaugarri berak izanen lituzkete makinek. "Herrian denetarik dago, batzuk proiektuaren alde eta beste batzuk kontra daude. Baina Kontzejuan enpresari babes gutuna bidali edo ez bozkatu genuen, eta baiezkoa atera zen", azaldu digu Iñaki Iraizotz etsaindarrak. Oraindik proiektuaren

inguruko xehetasun gehiegirik ez dutela dio, hala ere: "Ez dakigu zehazki proiektua nola izanen den, ezta bukaerako baldintzak zeintzuk izanen diren ere".

Ekonomikoki proiektuak herriari eta Anueri onurak ekarriko dizkiola uste du Iraizotzek, eta hori da egitasmoa babesteko duten arrazoiak. "Anue nahiko mugatuta dago ekonomikoki, eta ez dut horrelako aukera gehiegirik ikusten hemen", dio. Onartzen du, baina, tamaina handiko enpresa

“
Proiektuak
Anuerentzat onura
ekonomikoa ekar
dezakeela uste
du Iñaki Iraizotz
etsaindarrak
”

baten proiektu batean sartzeak bertigo pixka bat ere ematen diela. Momentuz, hasiera-hasierako fasean dago proiektua, eta egia da Etsaingo lurretan hiru errota joanen direla aurreikusten bada ere, horietatik bi Sarasibarrekin (Esteribar) muga-mugan daudela, eta tramitazioek aurrera egin ahala kokalekuan aldatetako ere egon litezkela. Behin fase hau pasatakoan, hurrengo pausoa ingurumen inpaktuaren gaineko txostena egitea izanen da, eta hori eskuetan, alegazioak aurkezteko aukera izanen da.

Parke eoliko gehiago behar al dira?

Interesatu eta kaltetuen artean, lehen fase honetan gobernuak talde ekologista bati ere bidaltzen dio proiektuaren jakinarazpena, ekarpenak egin ditzan. Kasu honetan, Sustrai Erakuntza Fundazioa da proiektuaren eraginen inguruko lanketa egiten ari den taldea. Parke eoliko berrien eraikuntza justifikatzeko energia berriztagarri eta berdeen onurez asko hitz egiten bada ere, egungo energia arazoei ez die soluzio handirik ekartzen, elkarteren arabera, eta horiek eraikitzerakoan eragiten diren kalteak ere ez dira kontuan hartzen.

"Nafarroan kontsumitzen den energiaren %20 soilik da elektrizitatea; eta %20 horretatik jada %70 inguru energia berriztagarrietatik ateratzen da", zioen Zelaia fundazioko kideak Irati Irratian. Zer esan nahi duen horrek? Bada, eguzkia edo haizea dagoenean Nafarroan kontsumitzen den elektrizitate zati handiena energia berriztagarrietatik datorrela, baina haizerik edo eguzkirik ez dagoenean ez. Eraiki nahi dituzten parke berri guztiekin, haize egunetan elektrizitate soberakina egonen litzateke, eta beraz, elektrizitatea esportatu egin beharko litzateke.

Sustrai Erakuntzako kidearen ustez, aterabidea beste bide batetik etorriko litzateke: "Kontsumoa murriztea da soluzio bakarra, Espainiako estatuan, Nafarroan eta mundu osoan. Ekonomiaren desazkunderantz pausoak eman beharra dira, eta kapitalismoak ekonomiaren hazkundera oinarri duenez, egunetik egunera okerrera doan ziklo batean sartuta gaude". Zentzu horretan, tokian tokiko energia proiektuak izan litezke aukera bat: herrietan dauden baliabideak aprobetxatuz eta herriak berak kudeatuz.

Ultzamako merkataritzan bonoak erabiltzen ahal dira

Ultzamako Udalak Bizi Bonoak programan parte hartuko duten enpresen zerrenda argitaratu du. Hauetaz disfrutatzeko baldintzak ere agertzen dira.

Bonoak, Ultzamako ostatu, alojamendu, gozogintzako lantegian eta zerbitzu hauetan erabiltzen ahal dira.



Ultzamako udaletxea ▲

OSTATUAK ETA ALOJAMENDUAK

Iraizotzeko Ostatua	948 30 53 28
Larraitzarko Ostatua	948 30 50 77
Gerendiaingo Ostatua	948 30 50 54
Juandiegorena (Eltzaburu)	948 30 53 28
Benta Etxea (Eltzaburu)	948 30 53 28
Casa Rural Albirena (Arraitz)	948 30 53 28
Benta Ultzama (Arraitz - Belate)	948 30 53 28

ZERBITZUAK, AISIALDIA...

Fundación Ultzama 2013 (Lizaso) Ultzama Baserri Eskola Barraskilo Proiektua/Slow Food Eskola Gaztandegi Eskola Orgiko basoa	629 12 64 99
Lizaso Pich&Putt Golf (Lizaso)	619 70 04 56
Coach Sistémico (Larraitzar)	637 46 76 74
Emprende Bosque (Larraitzar)	622 58 94 00
Obrador Bapo (Ilarregi)	649 11 58 81

Baldintza batzuk hauek dira: 18 urte baino gehiago izan behar du **erosleak**. Bonoa, erosi duzun lekuan bertan gastatu behar duzu, baina ez du zertan izan egun berean. Edozeinek erosten ahal du, nahiz eta ultzamarra ez izan. Pertsona batek enpresa bakoitzean bono bat erosten ahal du.

Taberna eta zerbitzuetan bonoak urriaren 2a baino lehen erabili behar dira. Alojamentuetan berriz **epea** azaroaren 15a arte luzatzen da. Dena den, alojamentuen kasuan, baldintzak desberdinak dira. Gau bakoitzeko 8 euroko deskontua izanen du erabiltzaileak. Pertsona berdinak ezin izanen du **egonaldi** bat baino gehiago izan deskontuarekin. Hau da, irailean 3 gau igarotzen baditu eta bonuak baliatzen baditu, urrian ezin izango du berriz ere eskaintzaren etekinik atera.

Ultzamako Udalak kudeatzen duen proiektu honen helburua bertako merkataritzari bultzada bat ematea da, eta krisi garai hauetan **laguntza** bat eskaintzea.

Bono bakoitzak 24 euro balio du, eta Udalak 8 euroko laguntza ematen du, beraz erosleak osotara 32 euro gastatzen ahal ditu.

Programan parte hartzen duen enpresa bakoitzak 62 bono jaso ditu saltzeko.

Ekimen honen argibide gehiago Ultzamako Udalaren web orrian daude.

Hiztegia

- Zerrenda:** Lista
- Ekimen:** Iniciativa
- Epe:** Plazo
- Baldintza:** Condición
- Egonaldi:** Estancia
- Laguntza:** Ayuda
- Erosle:** Comprador



Euskara errazeko artikulua

Argazki lehiakeraren 6. edizioa badator

Ametza Elkartek berriz ere **argazki lehiaketa** antolatu du. Aurtengoa 6. edizioa izanen da. Argazkiak jasotzeko epea irailaren 15ean bukatzen da.

Lehiakideak Anue, Atez, Basaburua, Imotz, Lantz, Odieta edo Ultzamako udalean **errolatuta** behar dute gutxienez joan den urte batean.

Aurkeztuko diren argazkiak eskualde honekin lotura zuzena izan beharko dute, baina ez da paisaia soilik duen argazkirik onartuko. Lanak koloretan edo txuri-beltzean izan daitezke, baina A5 neurrikoak behar dute.

Parte hartzaile bakoitzak gehienez bi argazki aurkezten ahal ditu, saritu gabeak eta **jatorrizkoak**.

Argazki bakoitza **gutun-azal** handi batean aurkeztuko da, gainean argazkiaren **izenburua** daramala eta bere barnean, beste hiru sobre txiki sartuko dira, gainean guztietan argazkiaren izena idatzita dutelarik. Hiru sobreetako batean, argazkia sartuko da, beste batean argazki bera CD batean eta bestean lehiakidearen izen-abizenak, posta elektronikoa eta telefono zenbakia.

Parte hartu nahi duenak utz dezala gutun-azala Larraintzarko Bentazarrean, Jauntsarasko Apeztegierrin edo bidali dezala posta bidez Esan Erran Irratira, Udaletxea bigarren estaia P.K. 31866 Jauntsarats.

Saritutako lanak Pulunpek argitaratuko ditu eta Pulunpe izanen da argazkien jabe bai eta hauen eskubide guztiena ere. Saritu gabeko lanak ere aldizkariak argitaratzeko eskubide osoa izanen du.

Lehiaketan parte hartzeak oinarri hauek onartzea suposatzen du. Hauek, antolatzaileak hala erabakita, aldatu litezke.

Edizio honetako sariak hauek izanen dira: lehenengo saria, 300 euro; bigarrena 200euro eta hirugarrenarentzat 100 euroko saria.

Sariarekin zer egingo zenukeen pentsatu al duzu??

Hiztegia

Argazki: Fotografía

Lehiaketa: Concurso

Errolatuta: Empadronado

Jatorrizkoak: Originales

Gutun-azal: Sobre

Izenburua: Título

Saria: Premio





Gure ingurua turistez bete zaigu uda berezi honetan

Gure inguru honetan aurtengo uda trastean jende gehiago ibili delako ustea dugu. Antza jendeak Mediterraneo itsasora, atzerrira edo beste edozein leku turistikoetatik alde eta herri txikietara jotzeko aukera egin du. Horrela esan digu adibidez Ziaurritzko Gentzane Ripodasek. Bere landetxea beteta egon da, baina hasieran deuseztapen ugari jaso zituen. Bazirudien jendea ez zela urbilduko baina azken momentuko erreserbekin bete dute uda. Jendea gertutik etorri da, atzerritarrek utzitako lekua betetzen. Honela dio Udabeko Idoia Auzak ere. Azken momentuko erreserbak izan dira gehienak eta azkenean jendea leku gabe ere gelditu omen da.

Lantz herrian ere estatuko hainbat pertsonak bete dute udan ireki duen landetxe bakarrak. Mertxe Larralderen esanetan : "7 etxe banitu, aurtan aise beteko nituzke lekurik gabe geratu den jendearekin". Gainera, diotenez egonaldiak orokorrean luzeagoak izan dira.

Kanpinean ere uda oso ona izan dute. Atzerritar gutxi etorri dira baina bertakoek bete dute uztaila eta abuztuan kanpina. Egonaldi luzeak eta asteburuetan topera ibili dira. Diotenez, tabernan bertan ere nabaritu dute gorakada. Marta Gastonek esan digunez:

"Jendeak nahiago du daukagun taberna zabalean elkartu eta lasai egon leku jendetsuagotan elkartu baino gehiago eta aurtan bai egonaldiekin eta bai tabernarekin ere oso lanpetuta ibili gara". Apirila eta ekaina bitartean bete zituzten bungalow eta etxolak, hortik aurrera partzelak besterik ez dira geratu eta horiek ere pixkanaka bete dituzte.

Badirudi ba, ikusten duzuenek, inguruko alojamentuek ez dituztela arazoak izan jendea erakartzeko eta gure ingurua leku segurutzat hartu dutela turistek.

Lekunberriko turismo bulegoan esan digutenez, deigarria iduritu zaie aurtan Nafarroako Erriberako jendea egun pasa etorri beharrean, egonaldi luzeak egitera etorri dela eta joera hori asko handitu dela. Atzerritar gutxiago etorri direla baieztatu digute, euskalerritar ugari ordea.

Jendeak aurtan orohar nahiago izan du landetxe, kanpina edo halakoa hotela baino. Mendi ingurua ezagutu eta gehienbat familian etorri direnez, inguruan ibilbide errazak egiten pasa dituzte oporrak.

Hau ikusita badirudi modan jarriko garela, nork daki, datorren urteetan gure ingurua turismo gune bihurtuko den. Kasu..



Zurezko etxe turistikoak ▲



Bi makiren gorpuzkiak atera dituzte Goldaratzen

Uztailaren 24a eta 26a bitartean atera zituzten, Paco Etxeberriak gidatutako desobiratzean. Bi borrokalari antifrankisten gorpuzkiak dira, Aranzadi zientzia elkartearen eta Nafarroako Memoriaren institutuaren arabera.

Gobernuak ohar batean jakinarazi zuenez, bertan jasotako lekukotzen arabera, XX. mendeko 40. hamarkadan, frankismoaren aurka borrokan ari ziren hainbat lagun inguruko mendietan ezkutatu ziren, eta Armada espainolak inguratu egin zituen. Zenbait Iturriren arabera, 1944ko urria eta azaroa bitartean pasatu ziren Imoztik. Maki talde bati eraso egin zioten eta haietako hainbat bertan hil eta lurperatu zituzten, gutxienez, bi hobitan. Taldeko beste kide batek ihes egitea lortu zuen, zaurituta, eta egun batzuk beranduago

bertako bizilagunek haren gorpua topatu zuten segada izan zen tokitik hainbat kilometrora. Han hobiratu egin zuten.

Goldarazko bizilagunek gorpuzkiak aurkitu dituzten tokian oroitarriren bat jartzeko asmoa agertu dute. Desobiratze lanetan Nafarroako Memoriaren Institutuko ordezkariak, dokumentazio lanetan eta hobiak aurkitzen lagundu duten inguruko bizilagunak-Inaxio Legarra, Mikel Legarra eta Josean Iturralde alkate ohia tartean- eta Imotz bailarako Udaleko ordezkariak izan ziren, haien artean Alfredo Alzueta alkatea.

Gainera, esan digutenez, ezaguna da inguru haietan gorpuzki gehiago daudela lurperaturik. Haiek ere ateratzeko asmoa dago hurrengo hilabeteetan.



CAMPING - KANPINA

IZARPE

ULTZAMAKO ATEA - PUERTA DE ULZAMA

ESKATU ERAMATEKO JANARIA

Oilasko errea patatekin 13,90€

Paella errazioak 9,5 €

Pizzak, Hanburesak...



eta.... Ostegunero
8ak aldera Pintxo Pote



Eguneko Menua
Asteburuko Menu berezia
Pizzak, Hanburesak
Plater konbinatuak
Paellak....
eta askoz gehiago



iritzia



Mikel P. Ansa,
Berria

Ernegua

2020ko abuztuak 19

Eta horrela doa uda, haserre eta errieta artean, nahi eta ezinean, asmatu ezinean. Gazteak jarrituzten jopuntuanaurrea, erru guztia haiena balitz bezala; sumindu ziren asko. Orain tabernariak daude ernegatuta. Bilboko ostalarien elkarte batek salatu du hauteskundearen aurretik ahalaren %60an utzi zietela lan egiten, eta hainbestean: gastuak ordaintzeko adina ari zirela biltzen. Kendu zituzten aldi baterako enplegu erregulazioak, ekarri zituzten langileak atzera lanera, eta orain, %20an ari dira lanean. Ezin dutela jasan esan dute, eta ezin direla enplegu erregulaziora itzuli, laguntzarik gabe gelditu direla. Maskara derrigorrez eta beti jantzi beharrek ernegatuta daude beste batzuk; eta beste asko ere ernegatuta, baina maskarak jantzi nahi ez edo gaizki erabiltzen dutenekin. Ernegatuta daude mediku eta erizain asko, gehiegizko lanak eta baliabide faltak itota. Ernegatuta irakasleak, eskolarako itzulera antolatu ezinean. Ernegatuta gurasoak, udazkenak zer ekarriko dien. Orain oporrak salbatzen saiatuko dira Jaurilaritza eta Nafarroako Gobernua, jendeak oporrak nahi dituelako bizi lehen bezala. Baina, aldi berean, irailean berriro dena itxiko ote den kezka eta beldurra daude atezuan. Eta okerrean izan litekeena: ernegu hori guztia haserre, eta haserre hori sumin bihurtzen bada, lagunarteko eta familiako zubi batzuk hauts litezke. Luze doa, eta luzeago joko du, eta ernegua baino pazientzia eta enpatia handiagoa beharko dira. Eta baliabideak behar diren lekuan, errieta gutxiagorekin.

Beuntzako ostatua irailean irekiko dute


Iruindarrak dira ostatua hartu duten bi neskak eta irailean irekitzea da haien asmoa.

Pandemiak eraginda, Kike Galartzak ostatua ixtea erabaki zuen martxoan eta beste arlo batetan bere indarrak jarri. Harrez gero kontzejuak txukuntze lanak burutu ditu eta ostalari berrien bila zebilen.

Iragarkiari erantzuna eman diote Iruñeako bi neskak eta irailetik aurrera eskainiko dute zerbitzua. Ostatuarekin batera goiko etxebizitza kudeatzeko aukera ere izanen dute.



Beuntzako sarrera ▲



Ana Galarren bineta ▲



Pilota goxuko txapelketa aurreratu du Kirol Batzordeak

Covid-19aren krisiak eraginda, aurten ez da jokatu Gartzarongo Pilota Txapelketa. Horregatik, pilota goxukoa aurreratzea erabaki du Basaburuko eta Imozko Kirol Batzordeak. Irailaren 5a arte dago zabalik izena emateko epea.

Beti bezala, hiru maila izanen dira mutilen taldean eta bakarra nesken kategorian. Hasiera data aurreratu dute aurten, nahiz eta, honetan ere, abenduan bukatuko den. Aurreratzearen helburua, egunean

partida gutxiago jokatzeko da, lasaiago ibiltzeko eta aglomerazioak ekiditeko.

Aurreko urteetan irailean zabaldu eta urrirarte izaten zen apuntatzeko epea. Beraz, faltan botako dugu Gartzarongo Pilota Txapelketa, baina bereziki jende ugari biltzen zuen eta ezinezkoa ikusi du Kirol Batzordeak hura antolatzea. Ordainean, pilota goxukoa izanen dugu denbora luzeagoz.



▲ Pilotan jokatzen





Gero Arte Mintegia

Mikel Okiñenak eta Ainhoa Sanchezek ikastaroak eskainiko dituzte Imotzen

Mikel Okiñena etxalekuarrak eta Ainhoa Sanchezek Gero Arte Mintegia sortu zuten Iruñean, duela 15 urte. Arte plastikoen ikastaroak ematen dituzte bertan, eta izugarrizko arrakasta izan zuen denbora gutxian. Horrela, batz besteko 100 ikasle dira maila bakoitzean. Mintegiarekin batera eskoletan eta udaletxeetan ere aritzen dira eskualdez eskualde, eta irailetik aurrera Imozko udaletxean eskainiko dituzte ikastaroak.

Duela 20 urte ezagutu zuten elkar, Iruñeko Arte Eskolan; eta, orduz geroztik elkarrekin egin dute ibilbidea. Arte Ederrak ikasi zituzten Leioan eta orduan hasi ziren erakusketak eta ikastaroak eskaintzen. Okiñenak zurezko tailak egiten irakasten du, batez ere, eta Sanchezek margolaritza, marrazkigintza eta zeramika.

2005ean Gero Arte Mintegia zabaldu zuten Iruñean, arte plastikoen eskola erreferente bat bilatzeko asmoz. Gainera, Irurtzunen, AralArt estudioa ere badute. Bertan, enkarguak jasotzen dituzte. Han bizi ziren, estudioaren gainean, Mikel Okiñenaren sorterrira etortzea erabaki zuten arte.

Lastozko lehenengo etxebizitza

Etxalekun eraiki zuten lastozko etxean bizi dira duela urte eta erdi. Mikel Okiñena: "Imotzen badira lastozko beste eraikin batzuk, baina gurea eskualdeko lehenengo etxebizitza izan da". Ainhoa Sanchez: "Eraikin ekologiko batean bizi nahi genuen, ingurumenean eragin gutxien egin".

Iñaki Urkia arkitektoak, horrelako eraikuntzetan aditua, egin zuen etxea. Ingurumena errespetatzearekin batera, abantaila handiak ditu Sanchezek azaldu digun bezala: "Tenperatura oso gutxi aldatzen da, hiru gradu aldatu dezake gehienez urte osoan. Egurrekin bakarrik berotzen dugu etxe osoa eta lote

batek hiru urte iraungo digula uste dugu".

Ikastaroak Imotzen

Mintegiarekin batera, Jauntsarasko Oihanzabalen eta Irurtzongo eta Uharte Arakilgo eskolan aritzen dira irakasten. Baita Ezkabarteko, Goñiko, Lekunberriko eta Elizondoko udaletxeetan ere; besteak beste. Irailetik aurrera margolaritza, marrazkigintza eta zeramika ikastaroak ematen hasiko dira Imozko udaletxean, udalak gela bat utzi baitie. Ainhoa Sanchez: "Hemen ere lan egin nahi dugu, etxe ondoan. Momentuz udaletxean egingen dugu, baina Gero Arte bezalako gune bat izatea espero dugu noizbait".

Internet bidezko ikastaroak

Covid-19aren eraginez, itxialdian, beste aukera batzuk bilatu behar izan zituzten eta online ikastaroetara salto egin dute: "Ordenagailua piztu besterik ez genekien eta konfinamendua hasi eta 15 egunera internet bidezko 150 ikasle baino gehiago geneuzkan bion artean", Sanchezen hitzetan.

Mikel Okiñena: "hain ongi joan dira online ikastaroak ohiko egoerara itzultzean horiek mantentzea eskatu baitigute". Horregatik, webgune bat sortuko dute ikastaroendako eta internet bidezko denda osatzeko.



Mikel Okiñena eta Ainhoa Sanchez



Ekoizleak eta herritarrek bildu ditu bertakoa bultzatzeko planak

Konfinamendua baino lehen izan genuen planaren berri. Udalek eta Cederna Garalur garapen agentziak martxan jarritakoa, bertakoa bultzatzea du helburu nagusia, zuzeneko salmenta eta bestelako ekoizpen eta kontsumo ereduak sustatuz, besteak beste. Eta planari forma emateko, abian da produktoreak eta herritarrek bildu dituen prozesu parte-hartzailea.

Planak Atetz, Basaburua eta Imotz hartuko ditu gure eskualdean. Aldi berean, Lekunberrin, Araitzen, Leitza, Areson, Goizuetan eta Aranon garatzen ari da eta herri guztiak saretuko ditu.

Diagnostikoa, abiapuntua

Cederna Garalurrekegindako lehen sektoreari buruzko diagnostikoa izan zen abiapuntua. Hainbat inkesta zabaldu zituen ekoizleen artean, eta martxoan bertan bildutako erantzunak eta horien analisia aurkeztu zituzten. Amaier Unzueta, Cederna Garalurreko elikadura eta dinamizatzailer teknikaria: "Inkestetan ateratakoaz gain, gainera, aurkezpenetan botatutako ideiak bildu eta ordenatu genituen. Zein nahi ziren epe motzean egin eta zein epe luzean zehaztu genuen".

Saio horietan ekoizleak bakarrik ez, herritarrek, udalak eta bestelako eragileak ere izan ziren. "Atetzen, adibidez, Izarpe kanpinekoak ere agertu ziren. Sinergiak eta sektore ezberdinetako elkarlana ere lortu

nahi da, lehen sektorea, ostalaritza eta turismoaren artekoa, besteak beste", azaldu digu Unzuetak.

Pandemia eta salmenta zuzena

Itxialdiak prozesua eten zuen, eta irailean berrabiaraziko dute. Baina, Unzuetak esaten digun bezala, bileretan bildutako ideiekin zerikusi handia duten ekimenak sortu dira, batez ere salmenta zuzenarekin zerikusia dutenak: "Ekoizleak eta kontsumitzaileak biltzen dituen whatsapp talde bat osatzea izan zen proposamenetako bat eta konfinamenduak hori praktikan jarri du. Beste kasu batzuetan komertzioekin harremanak eta ekoizleen produktuak bertan saltzeko elkarlana sortu dira".

Pandemian bi fenomeno kontrajarri nabarmendu dira. Alde batetik, tokiko establezimenduetan erostea nagusitu da. Bestetik, hainbat ekoizleek salatu duten bezala, azokak bertan behera gelditu dira. Baina Amaier Unzueta optimista da: "Orain da momentua horrelako proiektuak bultzatzeko".

“

Hausnarketarekin batera, ekintzak ere bultzatu nahi ditugu, eta azokak izan dira izarra

”

Gurean bi azoka izan ditugu uda honetan. Latasako Biltegi ondoan uztailean egin zena eta Orokietakoa, abuztuaren. "Prozesu honetan, hausnarketarekin batera, ekintzak ere bultzatu nahi ditugu, eta azokak izan dira izarra".

Ekoizleen elkarteak

Prozesuan ateratako ideien artean, baserritarren elkarte bat sortzearena da izarretako beste bat. Leitza eta Areson jarri zuten hazia eta orain, gainontzeko herrietara ere zabaldu nahi da.

Cedernako teknikariak aitortzen duenez eskualde bakoitza ezberdina da. Horregatik, Leitza eta Aresoko zirriborroa oinarri gisa, ekarpenak egin dituzte gainontzeko herrietan. Adosturiko puntuak eta eztabaida sortu dezaketen dokumentu batean bildu dituzte eta irailean guztiok elkarrekin egingen duten bileran aztertuko dute.



▲ Jauntsarasko Polikiroldegian izan zen Basaburuko azoka, abuztuaren 29an



Tokiko ekoizleak, benetako eragilea

Miguel Angel Oartzun Baraibar, Egillor ustiatagia. Atetz. "Abeltzaintzak herriari bizia ematen dio"

8 urtez Maier lantegian lan egin ondoren, ardien ustiatagia jarri zuen duela 10 urte. Aitak erretiroa hartu zuenean, erreleboa hartu zion, "Aitak behiak zituen. Nik, ordea, ardiak jarri ditut, 600. Betidanik gustatu izan zait abeltzaintza, eta herriari bizia ematen diola uste dut". Oso gogorra dela aitortzen du, baina ez da damutu.

"Esne gehiena Iratiko Agour gaztategiari saltzen diot. Gainera, Anueko Tia Maritxuk eta Azkarateko Balerdik ere erosten didate esnea. Halaber, noizbait ustiatagi ondoan nire gaztategia jartzea gustatuko litzaidake. Horretarako, baina, oztopo burokratiko asko daude". Gainera, bildotsak saltzen ditu inguruko harategietan eta jatetxeetan.

Pandemiak, momentuz, ez diola gehiegi eragin dio Oartzunek, "Zertxobait bildotsen salmentan, jatetxeak itxirik izan baitira eta prezioak behera egin du; esnean, berriz, ez dut arazorik izan. Ikusiko dugu heldu den urtean".

Amaia Calvo, bitxiak, Basaburua. "Artisautza eta tokikoa, kontsumitzeko modu oso ekologikoa da".

Bartzelonako eskola batean hasi zuen bere ibilbidea. "Betidanik gustatu izan zait horrelako gauzak". Gero bere kabuz ikasten jarraitu zuen, noizbehinkako ikastaroekin uztartuz.

"Ondoren, ama izan nintzen eta alde batera utzi nuen urte batzuez. Duela bi urte, aldiz, bitxiekin berriz aritzea erabaki nuen, txoko bat jarri nuen etxean, lantegi moduan. Hasiera batean ez nuen inongo asmorik, baina umeak koxkortu dira eta denbora gehiago dut orain. Momentu aproposa da, pixka bat serioago hartzeko aukera badut eta azoka txikietara joaten hasi naiz".

Eta tartean pandemia tokatu zaio: "Uda zaila izaten ari da. Azoketara joateko gogo pila nituen eta asko bertan behera gelditu dira. Horregatik, Orokietakoa bezalako azokak, txikiak, etxean, oso ondo datorkigu. Hemen jende pila dago gauzak egiten dituen, artisauak,

tokikoak; Horrelako proiektuen alde nago. Baita kontsumitzaile gisa. Bailarako ekonomiarendako onuragarri dira eta kontsumitzeko modu oso ekologikoa".



Amaia Calvoren bitxiak ▲



600 ardi inguru ditu
Miguel Angel Oartzunek Egillorren ▲



Metalezko eta makramezko bitxiak egiten ditu
Amaia Calvok ▲



Eneko Jaurrieta Salinas, Eneko Ardoa, Udabe. "Toki txikiak dira interesatzen zaizkidanak: herrietako eta auzoetako dendak"

Eneko Jaurrieta Salinas Udaben bizi da 2003tik. "Ni Iruñekoa naiz baina hiria ez dut batere gustukoa, semaforo bakar bat ikusiz gero urduri jartzen naiz". Bere birraitonak hasitako lanbidea jaso du etxean. Amarekin ziharduen, baina bere bideari ekin zion duela 10 urte: "Ezin naiz geldirik egon, gauza berriak probatu behar ditut etengabe, neskak errieta egiten dit (barreak)". Eta ezinegon horretatik sortu zen ardo-alkoholaz egindako nafar ginebra, esate baterako. Ardoaz eta ginebraz gain, patxarana eta bermuta ere egiten du.

Berrikuntza bai, baina betiko saltoki txikiak ditu oinarri: "Saltoki handietan ez dut saltzen, hori ez da nire borroka. Niri leku txikiak

dira interesatzen zaizkidanak: herrietako eta auzoetako dendak". Pandemiaren eragina, zentzu horretan, itxaropentsu hartu zuen, gizarteak bide horretan zihoala ematen zuelako, baina berriz atzera egin dugula uste du. "Udaben oso polita izan zen, erresistentzia kutxa moduko bat egin genuen, nik egunero ardoa uzten nuen autobus geltokian,

edonork hartu dezan, eta nik barazki pila aurkitzen nituen nire etxeko atarian. Dena den, Iruñeko supermerkatu handietara sartzeko jende lerro amaigabeak ikusi ditut berriro".

<https://enekoardoa.eus/> helbidean haren produktuak erosteko aukera duzue, eta, noski, eskualdeko denda txikietan ere bai.



Patxarana egiten du Enekok, ardoaz, ginebraz eta bermutaz gain ▲



Zurezko Tallak

—ESKUZ EGINDAKOAK—

Tailuzko eskulan desberdinak / *Todo tipo de trabajos en talla*

Etxeen izenak / *Nombres de Casa*

Eguzkiloreak / *Cardos de Brujas*

Ongietorriak / *Bienvenidas*

Esekilekuak / *Percheros*

Armarriak / *Escudos*

Ikastaroak / *Cursos*

—MIKEL OKIÑENA [ETXALEKU]—

618 3520 14 [WHATSAPP] - geroarte@ymail.com





“Gogoetarako gonbitea egiten zaio publikoari antzezlanean”

Uztailaren 23an Jauntsarasko kiroldegian aurkeztu zuen La Banda antzerki eta zirko taldeak Kimera izeneko antzezlanea. Aizarozko Txetxu Collado taldeko kide da, eta lanaren inguruan gehiago jakiteko elkarriaketa egin genion saioaren bezperan.

• ZER KONTATZEN DA KIMERA ZIRKO-ANTZERKI IKUSKIZUNEAN?

Migratzaile baten istorioa kontatzen da antzezlan honetan. Leku berri batera iristen da protagonista eta bertakoekin topo egiten du, eta bertakoekin daukan harremanari buruzkoa da lana. Iraganeko garai batean dago kokatua istorioa, aurreko mendeko hogeigarren hamarkadan.

• NOLA UZTARTZEN DITUZUE ZIRKUA ETA ANTZERKIA?

Zirkua da, nolabait, gorputzaren eta objektuen erabilpen ikusgarri eta trebe bat egiten delako, eta antzerkia ere bada, istorio bat kontatzen delako. Jendea istorioaren aurrean gogoeta egiteko gonbitea egiten zaio, eta ikuskizunean jendea hunkitzeko helburua ere badugu. Dialogorik ez dago, baina gorputzaren hizkuntza

baliatuz kontatzen da istorioa. Agertzen diren pertsonaien arteko harremana ez da hitzen bidez adierazten, gorputzaren mugimendu eta hizkuntza bidez baizik.

• EMANALDI ASKO EGIN DITUZUE?

Ez, Jauntsaraskoa bigarren emanaldia izan zen. Lehena duela sei hilabete izan zen, Atarrabian egin genuen estreinaldian. Gerora, martxoan, apirilean eta maiatzean hitzartuak genituen emanaldi dezente, baina koronabirusaren ondorioz bertan behera gelditu edo atzeratu egin ziren. Udan hainbat emanaldi izan ditugu berriz. Nafarroan eta Euskal Herrian ibili gara bereziki, baina abuztuaren bukaeran Salamancara joan gara, Ciudad Rodrigoko antzerki jaialdi ezagunera. Pozik gaude aukera oso polita delako guretzat.

• NOIZTIK DAGO TALDEA MARTXAN, ETA NORTZUK OSATZEN DUZUE?

Lau lagunek osatzen dugu antzezlanea: Nano Napal eta Izaskun Lasarte dira La Banda konpainiaren sortzaile, sustatzaile eta partaideak. Haiek pentsatu eta imajinatu zuten proiektua, eta haiek proposatu ziguten Jorge Cordon musikariari eta niri ikuskizun hau egitea. Jorge irurtzundarra da, piano jolea, eta emanaldian zuzeneko musika originala egiten du: gehienbat pianoa, baina beste instrumentu berezi batzuk ere jotzen ditu.

• NOIZ ETA NOLA HASI ZINEN ZU ANTZERKIAREN ETA ZIRKOAREN MUNDUAN?

Duela urte dezente hasi nintzen. Lehen kontaktua malabareekin izan zen, Barañaingo gaztetxean egin zen ikastaro batean. Gero mazekin eta pilotekin hasi nintzen, eta hortik aurrera antzerkiarekin eta zirkuarekin lotuta egon naiz.



Zirkua eta antzerkia uztartzen ditu La Banda taldeak ▲



Nano Napal, Izaskun Lasarte, Jorge Cordon eta Txetxu Colladok osatzen dute taldea ▲

AEKn, IRAKASLE BATEK BIK BESTE BALIO DU.

Irakasten daki eta ikas dezazun nahi du.

UN/A PROFESOR/A DE AEK VALE POR DOS.

Sabe enseñar y quiere que aprendas.



euskara praktikoa

Janire Urrestarazu Aizpurua, AEK-ko irakaslea.



EUSKARA-IKASTAROAK · CURSOS DE EUSKERA

Ultzamako AEK

Maila guztiak · Todos los niveles

Guraso taldea 5/6 ordu astean

EGA azterketa prestatzeko ikastaroa

SAKONTZEN (arauak berrikusi, ohiko akatsak zuzendu...)

Taldea edo autoikaskuntza · Grupo o autoaprendizaje

Mintzakide egitasmoa (Mintzapraktika egiteko taldeak)

Izena eman irailaren 27a baino lehen

Matricularse antes del 27 de septiembre

Informazioa eta izena ematea · Información y matriculación

948 60 47 04 edo 607 622102

larraun@aek.eus

Ultzamako AEK euskaltegia · **Larraitzar**



DIRULAGUNTZAK / BECAS

**Iparraldeko Euskara Mankomunitateak diruz
lagundutako ikastaroak**



Gerra gure alderdian (I)

1936ko gerraz idatzi ditugu bi artikulu. Gerra Espainian nola izan zen kontatzen genuen lehenean eta baita Basaburua eta Imozko hildako soldaduen zerrendak publikatu ere. Bigarrenean, berriz, Nafarroan gerrak izan zituen zenbait berezitasun nabarmendu genuen. Aldi berean gerran hil ziren Ultzamako eta Odietako soldaduen zerrenda xehea atera genuen.

Oraingoan, Anueko kontuez ihardukiko dugu. Eta zintzilik geldituko zaizkigu Lantz eta Atetz.

Anueko berri ematerakoan, kontuan hartu behar da Olaguen karabineroek (1) zuten kuartela eta, gehiago oraindik, Guardia Zibilek ere bazutela berea. Azken hauek behintzat errepresioan parte zuzena hartu zuten, baina kontu hori bertze baterako utziko dugu. Eta erran beharrik ez dago bi kuartel izateak, kanpotarrez beteak, nolako eragina izaten duen herri bateko nortasunean. Honetaz ere ez dugu deus gehiago aipatuko.

Anueko egoera politikoa gainerako ibarrekin konparatuz.

Anueko egoera, politika aldetik, Ultzamaldeko gainerako udalerriena bezalakoa zen, eskuinekoak ziren nagusi, diferentzia aunitzez gainera; baina Anuen, erran behar dugu, Partido Nacionalista Vasco deituak ere indar handia zuela. Gure alderdian Anuen zuen indar handiena, Madrilgo Gorteetarako 1936ko hauteskundeetan %23 atera baitzuen. Gainerakoetan aunitzez ere gutxiago, errate baterako Basaburuan %10 eta Ultzaman %6

Ezkerrak ere Anuen izan zuen indar handiena, %8 atera baitzuen. Basaburuan, errate baterako, %1, eta gainerako udalerrietan ere berdintsu. Hitz batez, hutsaren hurrengoa.

Boluntarioak?

Karlistak, 1931. urtean Errepublika etorri eta ia berehala hasi ziren haren kontra, armak erdietsi eta bota beharrez. Beraz, 1936ko uztailaren 17 eta 18an, militarrek altxatu zirenean, Nafarroako herri aunitzetan prest zeuden karlistak eta 19an bertan frentera abiatu ziren. Anuen, guardia zibil eta karabinero batzuk ezik, egun horretan ez zen inor mugitu. Baina, hurrengo egunetan bai hasi zirela boluntario joaten.

Badira kasu bitxiak boluntarioez ari bagara. Errate baterako, Aritzuko **Luxenetik** hiru boluntario atera ziren, iloba eta bi osaba: Esteban Etsain Aranguren, 41 urtekoa, ezkongabea eta etxean bizi zena, eta bere anaia, Julian, 30 urtekoa, Iruñean ezkondu bizi zena. Iloba, berriz, Domingo Iruita Etsain, etxe berekoa eta 23 urtekoa.

Luxeneko bi anaia horiek toki eta egun berean hil ziren, 1936ko urriaren 18an, Siguentzan (Guadalajara) Kasualitate handiagorik zail.

Erran ere erran behar da, gerran ibili ziren Anueko guzietan zaharrena zela Esteban eta, gainera, lehen hila izan zen, bi egun lehenago hil zen Jose Idoate Ontsaloko etulaindarra kentzen badugu.

Dena dela, gehitu behar da, aunitz, erdi engainaturik joan zela, hala aipatu digu behintzat Goio Urdanitzek, **Luxeneko** semeak:

Niri jendeari entzutea aunitz gustatzen zait eta, etxean aditutakoaz gain, honi eta bertzeari entzunez hori antzematen dut, engainaturik joan zirela. Gure etxeok politikan ezjakinak ziren



Olagueko haurrak, herriko soldadu hilak gogoan. Zerrenda hau eta gurea berdinak dira. Oker bakarra Vicente Gurbindo Egozcue jartzen duela da, Gurbindo Etulain baita. Bestalde heriotz datetan ere bizpahirutan egunen baten diferentzia bada. Kontuan har Etxaide "gaztelua" Olaguekoan dagoela. Beraz, bertako soldadua ere, Ibarrola, tartean da. Manzano ez zuten jarri. Seinale ez zutela herritartzat hartzen, karabineroa eta herritik joan berria izan zen zen aurki.



ren soldaduak

erabat. Gureak, eta gureak bezala bertze aunitz, apezaren bultzadaz apuntatu ziren. Orduan herrian Epifanio Santxo Muro zegoen apez, Zubietako semea.

Frentean hildako bertze batzuek

Aritzuko **Luxeneko** hiru aipatu ditugu, boluntario joanak, baina bide bera egin zuten aunitz izan zen, gehientsuenak erreketek (Karlistak). Errate baterako, 17ren bat gerra hasi eta hamairu egun baino lehen (1936/07/31) apuntatu ziren. Anue bertakoak zirenez landa, guardia zibil eta karabinero batzuk ere boluntario joan ziren, hauetako gehintsuenak ejertzitoarekin.

Aritzuko kasu nabarmen hortaz aparte, bi anaia hil ziren Olaguen, Agustin eta Nicasio Oiaregi Olabe, 25 eta 36 urtekoak, biak ezkongabeak, **Gartxeneko** semeak. Eta adin handia zuena eta aipatu gabe utzi nahi ez duguna, Etsaingo **Bernarteneko** Marcos Elkano Lusarreta da, 37 urtetan hil zena.



Agustin Mariñelarena Lusarreta, Etulaingo
Juanpaizenekoa.

Eta hiletan gazteenak, berriz, bi dira, Olagueko **Martinbeltzeneko** Francisco Lastiri Ardanatz, eta Aritzuko **Maistruaren etxeko** Jose Maria Eguzkitza Mariezkurrena, 19 urtekoak biak. Azken hau Elgorriagan jaioa, bere bi arreba zaharrenak bezala, baina hain zuzen, bertze zazpi senide Etxalekun jaioko ziren 1920ko hamarkadan. Beraz, Jose Maria erdi etxalekuarra zen, bere biziaren erdia baino gehiago bertan egin baitzuen.

Aipagarriak denak dira, hildako guziak, bakoitzak bere historia du, baina denetara ezin iritsi. Horrek lan handiegia eskatzen du. Hala ere, bakarren bat gehiago aipatuko dugu:

Jose Domeño Bailon, Olagueko barberoaren semea, 19 urtetan joan zena boluntario ejertzitora eta sarjento kradua irabazi ondoren hil zena.

Bertze bi anaia olaguear ere aipatu gabe ezin utzi: Rosalio Rubio Marin, 20 urtetan hil zena, gerra hasi eta hiru hilabete pasattora, azaroaren 1ean hil baitzen. Hau Zaragozako semea zen eta bazuen anaia bat, Victor, 16 urtekoa, Iruñean jaioa. Hauek gerra hasi baino lehenago joanak ziren boluntario, ejertzitora, lehena uztailaren 17an, eta bigarrena uztailaren batean. Ejertzitora sartu orduko ia, gerra etorri eta frentera joan behar izan zuten, zoritxarrez. Erran bezala Rosaliok bizia galdu zuen.



Txurdan

(1) Karabineroak frontieretako poliziak ziren. Guardia Zibilak orokorroean eskuinak baldin baziren, karabineroak ezkerrean gehiago jotzen zuten. Francok gerra ondoan desegin zuen polizia hau, ezkerre zelakoz. Fidatzen ez.

Nor da hau?



Vicente Gurbindo Egozkue zeritzan inor ez zen izan Anuen. Hala ere Udaleko paperetan bai badatorrela. Eta "Muertos por Dios y por España" liburuan ere bai. Eta paperetan bere uzteko fotografia ere badator. Jakin nahi genuke mutil eder hori nor den. Erranen diguzue?

Eta gerrara buruz, Anueko beste zerbait interesekoa, bitxia, jakingarria baduzu, jarri gurekin harremanetan.

Eskermila.

Hiztegia

Berezitasuna: Característica

Iharduki: Hitz egin (hemen ere ibiltzen da hitz hau)

Nortasuna: Personalidad

Ibarra: Valle

Erdietsi: Lortu, conseguir (Hemen ere ibiltzen da hitz hau)



Agustín Oiategui Olabe, Olagueko Gartxenekoa ▲



Marcos Larralde Zenotz, Olagueko Sunbillenekoa ▲



Urbano Legarrea Gaskue, Etsaingo Juangonekoa ▲

Anue

IZENA	1. DEITURA	2. DEITURA	HERRIA	ZEIN ETXETAKOA ZEN	SORTEGUNA	HERIOTZ EGUNA	ZENBAT URTEKIN	NON ARIZEN ZERBITZEN (1)
JOSÉ MARÍA ESTEBAN	EGÚZQUIZA ESÁIN	MARIEZCURRENA ARANGUREN	ARITZU	Eskoletxekoa	25/10/18	6/4/38	19	Erregenteak
JUAN MARTÍN	YABEN	IRIBERRI	ARITZU	Luxenea	30/11/1894	18/10/36	41	Erregenteak
JOSÉ	BARAIBAR	LIZARRAGA	ARITZU	Unindenea	2/4/11	21/9/38	27	Armada
FRANCISCO	ELIZAGA	RECALDE	BURUTAIN	Ettxeberria	??/1908	9/9/37	29	Erregenteak
JOSÉ MARIA	LIZARRAGA	GUEL BENZU	BURUTAIN	Simonea	11/5/12	21/3/37	24	Erregenteak
ESTEBAN	OLZA	VASCONZUELO	BURUTAIN	Juantronea	22/3/13	2/1/38	24	Erregenteak
MIGUEL	IBARROLA	ILARREGUI	BURUTAIN	Berekoetxeko maistarra	12/3/02	21/7/37	25	Erregenteak
MARCOS	ELCANO	LUSARRETA	ETXAIDE	Etxaide	8/5/17	6/5/38	20	Erregenteak
MARCELINO	GOÑI	ECHEVERRÍA	ETSAIN	Bernartenea	1/5/00	10/5/37	37	Erregenteak
URBANO	LEGARREA	GASCUE	ETSAIN	Casa Bernardo	24/4/14	10/5/37	23	Erregenteak
DIONISIO	EGOZCUE	SOTO	ETSAIN	Juankonea	4/4/10	19/5/38	28	Falanjea
JOSÉ	IDOATE	ONSALO	ETULAIN	Benta	9/10/08	16/6/37	28	Erregenteak
AGUSTÍN	MARIÑELARENA	LUSARRETA	ETULAIN	Goitikoetxea	18/9/12	16/10/36	24	Armada
JOSÉ	DOMEÑO	BAILON	ETULAIN	Juanpaitzenea	24/10/14	20/12/38	24	Erregenteak
ANICETO	EGOZCUE	UGALDE	OLAGUE	Domeñon etxekoa	17/6/04	12/9/37	23	Armada
VICENTE	GURBINDO	ETULÁIN	OLAGUE	Txankarnea	20/12/15	23/3/38	22	Armada
MARCOS	LARRALDE	CENOZ	OLAGUE	Mitxelenea (Juveraren etxekoa)	25/1/15	31/3/37	22	Armada
FRANCISCO	LASTIRI	ARDANAZ	OLAGUE	Xunbillenea	16/11/14	17/5/37	22	Armada
VICTORIANO	MANZANO	CANTERO	OLAGUE	Martinbeltzenea	??/01/1918	11/6/37	19	Armada
AGUSTÍN	OYAREGUI	OLAVE	OLAGUE	Karabineroa zen	??/1913	4/8/37	35	Armada
NICASIO	OYAREGUI	OLAVE	OLAGUE	Gartxenea	28/8/11	27/8/37	25	Armada
SANTIAGO	PEROCHENA	ECHAURI	OLAGUE	Gartxenea	13/12/01	29/5/38	36	Erregenteak
ROSALIO	RUBIO	MARÍN	OLAGUE	Albeitaren etxekoa	23/2/17	11/9/37	20	Erregenteak
			OLAGUE	Karabineroen etxea	30/8/16	1/11/36	20	Armada



Hitz gogorrak (II)

Jotakazak

Orain bi urte, hitz eta esaldi gogorrez aritu ginen. Eta gaurkoan hari segida emanen diogu.

Aipatu genuen "Jo eta akaba ezak" esaldia. Hor lau hitz ditugu. Eta zortzi silaba. Eta guk dena batean esaten genuen, *jotakazak*, lau silabetan. Eta Jo eta akabatu, esaldia berriz, *jotakatu*, *aditza* bihurtua genuen.

Jotakatu aditza, hitz bakarra genuen eta dugu, jakina. *Beregaina* dena, bere esanahi bereziarekin. Gure hiztegian sartzeko modukoa, beste edozein hitz bezala. *Beregain* da. Eta ez du esan nahi sorreran esan nahi zuena soilik, hau da, jo eta hil. Beste zerbait ere esan nahi du, badu bigarren adiera bat: eultzi bat eman, *azpiratu*, ...garaitu eta ongi izorratu.

Beste esaldi bat ere ez nuen lehengoan aipatu eta izugarri

gustatzen zitzaigun esatea: *Jainkoak ez hau hillen!* Hau zitzaigun *mehatxu* handienetakoa! Eta zorrotza eta ongi asmatutakoa gainera. Hori kuttuna zitzaigun. Nolanahi dela, serio eta gorrotoz oso gutxitan ibili beharrekoa, oso gutxitan. Gehiagotan, hori bai, era neutro batez ibiltzen genuena, era arriskugarrian ibiltzen zenagatik adibidez: *hori ez dik Jainkoak hilen*. Edo gehiagotan, txantxetan, *hiri ez dik Jainkoak hilen* (ez hau Jainkoak hillen, beharko luke, jakina), horrela laso-laso, hizketan elkarri ziria sartze bati erantzuteko eta.

Bai, esaldi polita zitzaidan.

Eta *lepakatu* hitza? Hori ere hor genuen, *bortitz* samarra, zerbait landare edo arbolen bat gerri-gerritik moztu esanahiko luke, baina baita norbait azpiratu eta

xehatu edo. Indar handiko hitza zen.

Eta gaurko hitzaldi (sic) honi bukaera emateko, norbait zanpatu, esateko, hainbat hitz genituen: zanparrada bat eman, ultzia (eultzia) eman, xehatu, inarrosaldi bat eman, zanpaldi bat eman, astinaldi bat eman ... (kanpokoak ditugu orain hain hedatua dagoen jipoitu (Gipuzkoakoa) edo kalitu eta zafratu (Iparraldekoak)

Aberatsago genuen hizketa gaztetxotan zahartzaroan baino. Eta hori gaitz handia da euskararentzat. Denbora pasatu ahala pobretzen ari gara, alderantziz izan behar duenean. Ai, ai, gure ardo frexkoa!



Txurdan



▲ Jotakatuta

Hiztegia

Aditza: Verbo

Beregaina: Hitz osoa eta independentea, bere kabuz funtzionatzen duena

Azpiratu: Borroka batean **azpian hartu**. Edo zerbait edo norbait azpian hartu

Mehatxu: Amenaza

Bortitza: Violento



Sagar tarta

Puri Etxeberriaren errezeta: errexa eta goxoa

Ale honetan Ultzamara jo dugu errezetaren bila. Gozozaleak omen gara gure eskualde honetan, beste behin ere postrea proposatu baitigute. Oraingoan, Auzako Puri Etxeberria da gure sukaldaria, eta sagar-tartaren errezeta azaldu digu. Laguntzaileak, bilobak ditu; izan ere, txikiekin prestatzeko aukera polita izan daiteke hau! Animatuko al zarete zuek ere etxean egiten?

OSAGIAK

7 edo 8 sagar zapoetsu

3 arrautza

Basokada eta erdi azukre

Basokada bat irin

**Bi yogurt natural
(edo bi basokada esne)**

**Patxaka (sagarmin eta anisa)
kopatxo bat**

Marmelada

Gurin pixka bat

• PAUSOAK:

1) Sagarrak zuritu. Hiru erreserban utzi eta bost zatitu. Zatitutakoak ontzi batera bota, eta gehitu yogurtak edo esnea. Irabiagailu elektrikoaz xehetu dena.

2) Beste ontzi batean, hiru arrautzak eta azukrea irabiatu. Irina ere gehitu eta irabiagailuarekin ongi nahasi.

3) Bi ontzietako osagaiak elkartu, patxaka gehitu eta irabiagailuarekin ongi nahasi.

4) Tarta ontzia gurinez igurtzi eta gainean irin pixka bat bota.

5) Landu dugun oreia ontziratu.

6) Hasieran gorde ditugun sagarrekin xafiak egin eta orearen gainean ipini txukun eta artetsu.

7) 180 gradutan berotua dugun labean sartu 50-60 minutuz. Gainera sagarrek gorri-iluna hartzea nahi badugu, labean gainera beroa jarri beharko dugu.

8) Hozten utzi, eta... on egin!!

▼ *Itxura bikaina du Puri Etxeberriaren sagar tartak*



▲ *Etzeko gaztetxoekin egiteko errezeta goxoa da hauxe*

La próxima,
en euskera

2020-2021
IKASTURTEA
CURSO
2020-2021

Hurrengoan,
euskaraz!

GOZATU
EUSKARA!

DISFRUTA EN EL EUSKALTEGI

EUSKALTEGIEI ETA LAGUNTZEI
BURUZKO INFORMAZIO GUZTIA HEMEN
TODA LA INFORMACIÓN RELATIVA A
CENTROS Y SUBVENCIONES A LA
MATRÍCULA

948 012 012

euskaraikasi.nafarroa.eus
aprendeusukera.navarra.es
elaide.eus

BIDEA IKUSI
VER VIDEO



Gobierno
de Navarra



Nafarroako
Gobernua



UDALAK / AYUNTAMIENTOS: ANSOÁIN / ANTSOAIN, AOIZ / AGOITZ, ARANGUREN, AURITZ / BURGUETE, BARAÑAIN, BASABURUA, BERRIOPLANO / BERRIOBEITI, BERRIOZAR, BURLADA / BURLATA, CENDEA DE OLZA / OLTZA ZENDEA, ERROIBAR / VALLE DE ERRO, ESTELLA-LIZARRA, ESTERIBAR, ETXAURI, GALAR, HUARTE / UHARTE, IMOTZ, LIZOÁIN-ARRIASGOITI / LIZOAINIBAR-ARRIASGOITI, LUZAIDE / VALCARLOS, ODIETA, ORKOIEN, PAMPLONA / IRUÑA, PUENTE LA REINA / GARES, ULTZAMA, VALLE DE ARCE / ARTZIBAR, VALLE DE EGÜÉS / EGUESIBAR, VILLAVA / ATARRABIA, ZIZUR MAYOR / ZIZUR NAGUSIA

MANKOMUNITATEAK / MANCOMUNIDADES: IRANZU / IRANTZU, SAKANA, VALDIZARBE / IZARBEIBAR

BATZORDE NAGUSIAK / JUNTAS GENERALES: AEZKOA, RONCAL / ERRONKARI, SALAZAR / ZARAITZU

Julen Kañamares Mugertza

Txikitatik aizkoran ibili da Julen Kañamares Mugertza aroztegiarra (Atetz), aitaren eta osabaren ibilbidea jarraituz. Baina herri kiroleko guztia atsegin izan du beti eta harriak bereziki eman dio atentzioa. Horregatik, orain, 30 urte bete dituela, harekin ere hasi da. Binakako Euskal Pentatloian laugarrena gelditu zen Xabier Urrutiarekin bikote. Oso denbora gutxian prestatu ziren eta pozik dira emaitzarekin.

Binakako Pentatloian laugarrenak izan zineten, pozik emaitzarekin?

Nafar bakarrak izan ginen. Aurten denbora gutxi izan dugu prestatzeko. Jendeak urtebete darama txapelketa prestatzen, eta gu bi hilabete izan ditugu. Izan dugun denbora gutxi kontuan izanda gustura gaude emaitzarekin, heldu den urtera begira ilusioz hartuko dugu.

Aitarekin hasi al zinen aizkoran?

Bai, aita eta osaba urte asko daramatzate, eta txikitatik ikusi ditut, beraz, haiekin hasi nintzen. Gero Zurgai elkarte sortu zuten eta beti haiekin ibili naiz.

Eta orain, gainera, harriarekin eta gainontzeko ofizioetan hasi zara.

Umetatik guztia gustatu zait herri kirolean. Harriekin egiten direnek beti atentzioa eman didate baina

ez naiz inoiz ibili. Orain, pentatloia indarrean hasi dela, probatzeko egun bat hartu nuen, gustura aritu nintzen, eta korrika eta presaka txapelketarako prestatu nintzen.

Itxialdian nola entrenatu duzue?

Pixka bat mugatuta, baina ibili gara. Ez gaitu hirian bezain beste eragin. Egia da mendira joateko eta fondoa egiteko ezin izan dugu, baina egurra mozteko eta horrelakoak egiteko, barruan, bai izan dugu aukera.

Orain, nahiz eta poliki, berriz ikusi zaitzakegu plazetan.

Bai, herri askotan lehiaketak suspenditu dituzte, baina orain hasi dira berriz mugitzen. Orain, irailaren 5ean bakarkako pentatloia dugu eta horretan ari naiz buru-belarri.

“
Aizkorarekin ibili da txikitatik eta orain, pentatloian aitzakia hartuta, beti atentzioa eman dion harriarekin ere hasi da
”

Ondoren, aizkolarien Nafarroako txapelketa dugu, datarik ez dago oraindik baina egiteko asmoa badago. Irailean izaten da hori eta finala azaroan, Doneztebeko ferian. Baina, ikusiko dugu, aurten nahiko berezia izan behar du.

Pentatloiak osatzen duten 5 probak:

1. 100kg-ko harria jasotzea 40 aldiz
2. 400kg-ko harria lau plaza arrastan ibili
3. Lau kanaerdiko, Aizkoran
4. 50kg-ko txinga esku bakoitzean, zortzi plaza
5. Lau kilometro korrikan



Julen Kañamares harria jasotzen, Tolosan



ekoaholkuak

Eskolara bueltan, liburuak plastikorik gabe

Uda azkar joan da aurten ere eta iraila ate joka dugu, ikasturte berriarekin batera.

Aurtengo eskolara buelta berezia izango da; ia urte erdiz egon dira eskolak itxita eta haurrak eskolara joan gabe. Galdera asko daude aurtengo ikasturtearen inguruan,



▲ forroa

baina zalantzarik sortzen ez duena da iraila familiendako eskola-material berria erosteko garaia izanen dela. Zerrenda luzea da: arkatzak, bizkar-zorroak, margoak, boligrafoak, koadernoak, liburuak, ... eta azkeneko hauek forratzeko ez ahaztu hainbat plastiko metro! Ikasturtea bukatu, plastikoa kendu, zakarrontzira bota eta hurrengo ikasturtean gehiago.

Horrela eskola-liburuak ez dira hainbeste hondatzen eta horietako batzuk ikasle ezberdinen eskuetatik pasatzen dira. Azkar ikasi genuen eskola-liburuak berrerabiltzea familien poltsikorako aukera paregabea zela. Noski, bide batez ikasleak

ere baloretan hezitzen ditugu eta norbaitek ere esanen du ingurumenarekiko jarrera arduratsua dela.

Erabat baneratua dugu eskola-liburuen berrerabilpena, horregatik, oraingoan beste erronka bat proposatu nahi dizuet, eskola-liburuak plastikotik biluztea, alegia. Ausartzen zarete?

Badakit garrantzitsua dela liburuak babestea ahalik eta gutxien hondatzeko beraz, ohial edo aldizkari paperez forratzea da proposamena. Erabiltzen ez ditugun ohail zati edota aldizkariekin eskola-liburuak babestu natura zainduz.

 **Lurra**



Zoriondu zure laguna
Pulunpen!
pulunpe@gmail.com

Zorionak Zorionak !





Tratado de hortografía

Patxi Irurtzun liburuzainaren lan berria

Nobela berria argitaratu du Patxi Irurtzun Ultzamako liburuzainak: *Tratado de hortografía*. Uztailaren hasieran jarri zen salgai liburu dendetan, eta uztailaren 5ean *Diario de Noticias* egunkarian aurrerapen bat argitaratu zuten. Rock Radical Vasco garaian kokatzen den lan berriaren nondik norakoez galdetu diogu elkarrizketa honetan.

Rock Radical Vasco delakoaren garaian kokatutako nobela da *Tratado de hortografía* zure azken lana. Zer topatuko du irakurleak bertan?

Nobelak Rock Radical Vascoren izar ohi baten istorioa kontatzen du, gaurtik ikusita eta eguneroko batean berak idatzitakoarekin. Los tampones rock taldean jotzen zuen protagonistak, eta bere kanta ospetsuenak "Estamos contra las reglas" zuen izenburua. 80ko hamarkadan burrunba handia eragin zuten telebista saio batean kanta hori jotzen agertu zirenean (Las Vulpess taldea bezala). Baina, esan bezala, gaur egunean kokatzen da istorioa eta bestelako gai asko ere topatuko ditu irakurleak bertan: seme-alaba nerabeekiko harremana, prekarietatea, emaztearen heriotzagatiko dolua... Eta bai, garai hartako istorioak eta oroitzapenak, malenkoniarik gabe.

Aspalditik zenuen mugimendu eta garai horren inguruan zerbait idazteko gogoia?

Bai, beti izan dut horri buruz idazteko gogoia, intentsitate handiz bizi nuelako garai hura, gaztea nintzela (kontzertuak, kaseteak, fanzineak...). Nire nobela eta ipuin askotan agertzen dira erreferentziak, baina oraingoan protagonismo gehiago eman nahi izan diot. Hala ere, ez nekien nola egin, oso istorio zabala zela uste nuelako batetik, eta ni ez naizelako musikaria bestetik (dena den, garai hartako musikariek gehiegi gogoratzen ez dutela eta urte horiek laino baten moduan dituztela kontatzen didate). Gero konturatu nintzen

agian ez zela beharrezkoa istorio handi bat kontatzea, eta istorio txiki baten bidez posible zela, intimoagoa edo egunerokoan oinarrituagoa, eta hori egin dut.

Nola izan da idazte prozesua? Denbora asko eman duzu?

Idazte prozesua fisikoki nahiko azkarra izan da: hiru hilabetetan egin dut. Baina halako zerbait idazteko ideia buruan bueltaka urte luzez egon da. Saiatu nintzen behin eta berriro eta ez zuen funtzionatzen. Azkenean, ia nahi gabe, eguneroko hori idazten hasi nintzen eta oso azkar ateratzen zen guztia: nobelaren doinua, egoerak, pertsonaiak... Gainera, liburua nire beste liburu batzuekin lotu da, hau ere kasik nahi gabe. Adibidez, nire lehen nobeletan agertzen den hiria berreskuratu dut, Jamerdana. Estiloa informala da, baina era berean nire liburu autobiografikoagoekin ere lotzen da, adibidez **Dios nunca reza**-rekin, eguneroko bat zelako, hura benetakoa... Egunkarietan idazten ditudan zutabe zati batzuk ere sartu ditut... Esan daiteke liburu honek beste liburuetan lotu gabe utzi ditudan gauza asko lotzen dituela, eta oso polita izan da urteetan zehar ni konturatu gabe organismo handiago bat idazten ari nintzen, ez dakit nola esan. Horregatik guztiagatik uste dut, liburu hau "txikia" izanagatik ere, niretzat edo nire ibilbide literarioarentzat oso inportantea dela.



Liburuaren azala ▲

“

Inoiz ez ditut ulertu idazteko orduan sufritzen dutela diotenak

”



Nobela gehienek bezala, errealitatetik eta fikziotik, bietatik pixka bat izanen du honek ere, ezta?

Bai, protagonista idazlea da, liburuzaina, seme-alaba nerabeak ditu... Baina ni ez naiz musikaria ezta alarguna ere. Dena nahasten da. Nire amak nire gauzak irakurtzen dituenean beti esaten du: "Baina, zu zara!", protagonista emakumea edo ni baino zaharragoa edo gazteagoa izanda ere. Eta egia da, baina ez da guztiz egia aldi berean. Hori da literatura.

Tratado de ortografía, izenburua bera ere umoretik idatzia dago. Umorea asko erabiltzen duzu zure lanetan, ezta?

Bai, saiatzzen naiz. Kasu honetan protagonistak gerrilla ortografiko talde batean parte hartzen du, bere gazteria berreskuratzeko ahalegin patetiko samar batean. Horregatik izenburuaren txistea

edo kontraesana. Umorea sartzea gustatzen zait nire liburuetan, bai, nik ongi pasatzeko idazterakoan -inoiz ez ditut ulertu idazteko orduan sufritzen dutela dioten idazle horiek, horretarako utzi!- eta jendeak irakurtzerakoan. Hala ere, esango nuke gehienetan tragikomediak direla nire istorioak, bizitza bezalakoak.

Norentzat da liburu hau? Garai hura bizi zutenek eta gaur egungo gazteek modu desberdinean ulertuko/jasoko dutela uste duzu?

Belaunaldien arteko liburu dela esango nuke, gaur berrogeita hamar urte inguru ditugunoi buruzkoa, gure gaztaroa gogoratzen duelako eta gure gaurko egoera kontatzen duelako: zer lortu dugun, non geratu diren gure ametsak... Baina nerabetasunaz, gaurko nerabetasunaz ere hitz egiten du, eta gazteek ere gustura irakurtzen

“**Beti izan dut Euskal Rock Erradikaleko garaia buruz idazteko gogoa**”

ahal dute. Gainera, gazte askok entzuten dute oraindik La Polla edo Eskorbuto (nire auzoa pintadaz josita dago eta ez dut uste berrogeita hamar urteko jendeak eginak direnik). Horretaz aparte, ez dut uste beharrezkoa denik rock erradikala gustatzea liburuaz gozatzeko, eta uste dut istorioa, berez, erakargarria dela irakurtzea maitatzen dutenentzat.

Nobela honetako pertsonaiek jarraipen bat izanen dutela aipatu duzu elkarrizketaren batean...

Bai, hala espero dut. Ni oso eroso sentitzen naiz gauza hauek idazten, eta gainera gustatuko litzaidake benetako protagonistekin, esate baterako El Drogas, Marino Goñi, Vulpessko Loles edo Tijuanako Jimmirekin mintzatzea, haiek niri garai hartako istorioak kontatzeko. Garai horretako istorio luzeago baten lehen atala izatea hau da nire asmoa, baina ikusiko dugu nola funtzionatzen duen liburuak eta irakurleek zer esaten duten.

Honezkero liburu-dendetan dago salgai, baina... noizko izanen dugu Larraintzarko liburutegian?

Laster, espero dut. Fisikoki berehala, baina espero dut aurkezpen bat ere egitea, musika entzutea... Tamalez, gaur gaurkoz ezin da esan noiz. Bitartean, hor dago liburu eta ni liburutegian nahi duenarekin mintzatzeko.



2020ko ekainean eta uztailean

2020ko ekainean eta uztailean gure alderdian izan ziren jaiotzak, ezkontzak eta heriotzak:

Jaiotzak:

ANUE Olague

Ortzi Perez Puñal, ekainaren 24an sortu zen, David eta Mariaren semea.



▲ Ortzi Perez

ULTZAMA Iraizotz

Maddi Beratsain Arbilla, uztailaren 25ean sortu zen, **Migelen** Eneko eta Maitaneren alaba.



▲ Iraizotza iritsi zaigu Maddi

“Zorionak gurasoei”

Ezkontzak

Ekainean eta uztailean, guk dakigula, ezkontzarik ez dugu izan.

“Gure oroimenean izanen zarete”

Heriotzak:

ATETZ Iriberrri

Juan Felipe Barberia Huarte, uztailaren 29an hil zen, 82 urtetan. Bertako semea..

ODIETA Ostitz

Maria Pilar Pabolaza Salinas, maiatzaren 25ean hil zen, 90 urtetan. **Arutzeneko** etxeakoandrea. (Maiatzekoan ez genuen jarri)

ULTZAMA Auza

Tomas Beratsain Arribillaga, ekainaren 6an hil zen, 82 urtetan. **Itxartako** nagusia.



▲ Tomas Beratsain

Larraitzar

Simon Iraizotz Oiartzun, ekainaren 28an hil zen, 87 urtetan. **Antxikoneko** nagusia.



▲ Simon Iraizotz

Larraitzar

Josefina Aginaga Azkarate, uztailaren 4an zendu zen. **Albaiteroaren etxe**ko etxeakoandrea.



▲ Josefina Aginaga

Lizaso

Jesus Maria Gerendiain Ilarregi, uztailaren 16an zendu zen 81 urtetan. **Domingoneko** semea, apeza.



▲ Jesus Maria Gerendiain

Urritzola

Martin Ripa Elizondo, ekainaren 17an hil zen, 68 urtetan. **Ollokoneko** semea.



▲ Martin Ripa

MANTENTZE - LANAK · INSTALAZIOAK · KONPONKETAK · ARGI PUBLIKOAK
PROYEKTUAK · AURREKONTUAK · BOLETINAK ETA ZIURTAGIRIAK

KARRIKOLAR
ELEKTRIZITATEA



629 31 53 32 · 722 766 835

LIZASO · karrikolaregoitz@gmail.com

**GOTELET-A
KENTZEA**

**FATXADAK
ZAHARBERRITZEA**

**IRAGAZGAITEA
(IMPERMEABILIZACIONES)**

DAVID ELIZONDO PINTURAK
DEKORAZIO ETA INDUSTRIA PINTURA

**KALITATEA
ETA
GARBITASUNA**

**AURREKONTUA
KONPROMEZURIK GABE**

678623866

ZIAURRITZ · argapin@hotmail.com





HELDU DIRA! ¡YA ESTÁN AQUÍ!

Irailaren 14tik aurrera · A partir del 14 de septiembre.

BERRIOGOITI-BERRIOSUSO

Parking Hortalizas Etxeberria · Tel. 654 35 22 71



NABARREKO

NADA QUE AÑADIR
